



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure inguruari erreparatuz gero, bistakoa da, birziklapenarekin arazo bat daukagula. Jaietan esaterako, plastiko edukiontziz beteta gelditzen da lurzorua eta ez da inor haren bilketaz arduratzen. Bada, arazo horri konponbidea eman nahian, otu zitzaigun gure proiektuaren ideia. Gure makinaren bitartez, birziklapena sustatzeaz gain, jendeak kontzientzia hartzea nahi dugu: ingurugiroaz arduratzea, eta plastikozko hondakinak, lurrean botata utzi beharrik ez dagoela jabetzea.

Gure proiektua funtsean, “kontenedore adimentsuak” dira. Makina horien funtzioa zera da, plastikozko edukiontziak biltzea. Ostean, bildutako plastikoa enpresa bateri (Cicloplast) saltzeko asmoa dugu. Era berean, enpresa horrek, bestelako funtzio bat emango dio plastikoari, hau da, plastikoa berrerabiliko du.

